



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona.: 943-313030 e-posta: infogeldo@euskalerrria.org

Erreportaia: Igeldoko Itsas Meteorologia Behatokia

Urriko azken
asteburuan
Udazkeneko
Jaia!!!



KAIXO HERRIKIDE!!!

Zer moduz doa iraileko aldapa? Oporren osteko depresiorik ba al da? Halakorik ez izateko bada-kizu zer egin hurrengoan, udan lanean aritu beste asko jardun garen moduan!

Baina lasai, laneko karga hori arintzeko festa giroa izango dugu-ta laster. Urtero bezala, udazkenari ongi etorria egiteko, **Udazkeneko Jaia** ospatuko dugu datorren hilean. **Urriko azken asteburuan (24, 25, 26)** izango da. Egitaraua osatzean jasoko duzue etxean.



Kontu kontari

Konturatu al zarete inoiz Igeldoko kalerik luze-
enenetako batek Aita Orkolaga izena duela? Eta ba al dakigu nor izan zen hain kale luze hori merezi izan zuen gizona? Ba, kuriositatearen ar horrek bideratuta, Orri Informatibokoak Aita Orkolaga bidean dagoen Meteorologia behatokira hurbildu gara. Hainbeste alditan kanpotik ikusia dugun eraikin horrek bere barnean zer tramankulu eta istorio gordetzen dituen jakin asmoz. Bertan Ana Iglesias behatzailearekin elkarrizketatu gara eta berak eguneko 24 orduetan duen egitekoa azaldu digu.

Igeldoko Itsas Meteorologia Behatokia, 1905eko Azaroaren 5an ireki zuen Gipuzkoako Diputazioak. Kokapena ez zen kasualitatez aukeratu izan, Aita Orkolaga berak aukeratu zuen Igeldoko kaxkoa bere lana burutzeko leku egokitzat. Bizkaiko kostan Matxixako Lurmuturrean jartzea zen beste aukera, baina Igeldotik Iparraldeko kostaldea zein barne aldeko mendi lerroak ongi behatzeko aukera ikusi zuen nonbait. Orkolagak zentro honen irekierarekin meteorologia zientzia bihurtzea zuen helburu, artean mundu honetan artzainen iragarpenak eta sineskeriek baitziren nagusi. Bere zientifikotasuna aurrera eramateko, zenbait neurketa tresnak kanpotik ekarri zituen, baina bereak ere egin zituen hainbat tresna, oraindik ez baitzegoen neurketa-sistema homologaturik eta meteorologo bakoitza ahal zen moduan moldatzen omen zen. Hala, meteorologia munduan Orkolaga Sistema izeneko behaketa mota ezagun egin zen.

JUAN MIGEL ORKOLAGA

Hernanin jaio zen 1863an. Autodidakta meteorologia

munduan eta Zarauzko bikarioa. Asmatu zuen lehen-dabiziko iragarpena 1900ean egin zuen, azaroaren 15an. Oraindik Itsas Meteorologia zentroa martxan jarri gabe zegoen, baina ordurako gure herritik ibiltzen omen zen neurgailuak poltsan eta motxilan zituela. Ez zen lehenengo iragarpena izango, baina telegrafo bidez Gipuzkoa eta Bizkaiko Aldundietara zabaldu zen lehenendabizikoa izan zen. Bere zaletasuna bereziki itsasoa eta kostaldea behatzea zenez, Igeldoko behatokian, enbata zetorrela abisu emateko sistema jarri zuen martxan. Hala ere, 1912ko abuztuaren 12an gertatu zen tragedia ezin izan zuen saihestu. Nahiz eta berak iragarpena zuzen egin eta Galiziatik Bordelerainoko portu guztietara enbataren abisua bidali, ekaitzak Bizkaiko kostaldean, 145 arrantzale eraman zituen, horietatik 115 Bermeon.

Ikasketarik gabeko meteorologo saiatua izan zela diote. Bere ustetan, eguraldia iragartzeko sekretua, toki jakin bateko berezitasunak ezagutu eta behaketa luzaroan egitea zen. Bere iragarpenak Donostiako eguneroko prentsan eta irratian ematen zituen, lehenendabizikoa izan zen iragarpen zientifikoa komunikabideetan ematen. Hala, Orkolagari esker kaleko jendearen artean ordura arte ezezagun ziren meteorologiako terminoak ezagun bihurtzen hasi ziren, hala nola: borraska, fronte... Beraz, Orkolagak meteorologo on baten ezaugarri guztiak zituen; behaketarako, erlazio-analisirako, kritikarako eta erabakiak hartzeko gaitasun nabarmena baitzuen. Hala ere, osasunak ez zion askorik laguntzen eta 1914an, udazkenean sartzean, irailaren 22an hil zen 51 urte zituela. Hara zer kasualitatea, Orri Informatiboa prestatzen ari garen data berdina, baina orain dela 94 urte. Pena bera ezagutzeko aukerarik ez dugula izan!

BEHATOKIA EZAGUTZEN

Aurrez esan bezala, Igeldoko Meteorologia Behatokia ezagutzeko, Ana Iglesias behatzailearekin genuen hitzordua. Iglesiasek 20 urte daramatza Igeldoko Behatokian lanean eta xehetasun guztiakin azaldu zigun zein den behatzaile baten zeregina eta bertako tresnen funtzionamendua. Dena dela, bisitan zehar ikusitakoa azaltzen hasi aurretik, informazio orokor pixka bat ematea ongi legokeela pentsatu dugu.

Hasteko, behatzailea behaketa meteorologikoak egiteaz arduratzen den pertsona dela esan behar dugu. Eta Igeldokoari dagokionez, behatzaile ezberdinak daude egunero lanean. Bakoitzak 24 orduko turnoa izaten du eguerdiko ordu bietan hasita. Egun osoa neurketak eta kalkuluak egiten igarotzen dute. Izan ere, denbora zehatzean atmosferaren egoera fisikoa zein den jakiteko balio du behaketak. Euria egin duen jakiteko, zenbat egin duen, lainorik egon den, ze motatako lainoak diren, ikusgarritasuna, tenperatura, hezetasuna, atmosferaren presioa, haizearen norabidea eta abiadura, fenomeno berezirik badagoen...

Neurketak normalean hiru orduro egiten dira, baina aldagaien arabera aldaketak daude. Gainera, meteorologia behatokitik kontuan hartzen den ordutegia ez da guk darabilguna. Zeta ordutegia deritzo eta gurea baino 2 ordu atzerago doa.

Bestalde, Igeldoko Behatokia Estatu Espainiarraren esku dago, hau da, AEMETen (Agencia Estatal de Meteorologia) barnean mugitzen da. Ez du Euskalmetekin zerikusirik.

Funtzionamenduari dagokionez, aldibereko-tasuna nabarmendu zigun Iglesiasek. Hau da, Penintsulako behaketa guztiak momentu berean egiten dira eta ordenagailuz Madrilera bidaltzen dira bildutako datuak. Bertan, datuok aztertu eta mapa meteorologikoak osatzen dituzte eguraldiaren iragarpenak eginez. Dakigun bezala, hiru eguneko aurreikuspenak egiten dira eta baita aste guztikoak ere. Iglesiasen esanetan, ordea, azken horiek estatistikaren arabera izaten dira eta horregatik ez dira hain fidagarriak.

Euskal Herrian, Igeldokoaren antzeko behatokiak Hondarribiko eta Sondikako aireportuetan aurki ditzakegu.



BISITA PAUSOZ PAUSO

Eraikinaren barnean sartu eta berehala, barometroen gelarako atea ireki zigun Iglesiasek. Bertan, presioa neurtzen da. Barometroak barne kapsula bat du eta presioa handitzen denean, kapsula hori uzkurto egiten da eta plumula gorantz bidaltzen du. Presioa gutxitzen denean, berriz, kapsula zabaldu egiten da eta plumula jaitsi egiten da.

Barografoa ere badago gela berean. Honek egun osoko presioaren baloreak erregistratzen ditu.





Barografoen gela ondoan, Jardin Meteorologiko ra irteteko atea dago eta hara zuzendu ginen. Bertan, Aita Orkolagaren begiradapean daude tresna guztiak.



Garitaren aldamenean, baina lurrean, lurrazpiko termometroak daude. Sakonera ezberdinetara lurperatuta daude: 10cm-tara, 20ra, 50era, metro batera eta bitara. Termometro horiek lurrazpiko temperatura neurtzen dute.

Lehenik eta behin, Garita Meteorologikoa ikusi genuen. Garita txuriz margotuta dago eguzkiaren erradiazioetik babesteko eta pertsiana batzuk dauzka barruan dituen tresnek benetako datuak bil ditzaten. Alde bategatik, tenperatura neurtzeko bi termometro ezberdin daude. Batek tenperatura lehorra neurtzen du. Merkuriozko termometro normala da. Bestek tenperatura hezea neurtzen du, hau da, gorputz batek lurrazaleko lurrinketaren eraginez lor dezakeen tenperaturarik baxuena. Lurrinketan haizeak eta tenperaturak eragiten dute, beraz, zenbat eta bero eta haize gehiago egin lurrinketa handiagoa izango da eta hezetasun gutxiago egongo da. % 100eko hezetasuna dagoenean, bi termometroetako tenperaturak berdinak izaten dira. Termometro lehor eta hezeak sikrometroa osatzen dute. Garitan bertan, maxima eta minimako termometroak ere badaude. Maximako termometroak egunean egon den tenperaturarik altuena markatzen du. Minimakoak, berriz, tenperaturarik baxuena. Egun osoko tenperatura eta hezetasuna adierazten duten datu guztiak termografoan bilduta geratzen dira.



Jarraian, Tanke Baporimetrikoa ikusi genuen. Lurrinketa neurtzeko tresna da berau. Tankean dagoen uraren maila neurtzen da 24 orduro. Maila gehiago ala gutxiago jaitsi lurrinketa gehiago edo gutxiago egon den seinale. Horrez gain, aldamenean duen Plubiometroa eduki behar da kontuan. Azken honek egindako euria biltzen du. Beraz, benetako lurrinketa jakiteko, tankeko urari egindako euria kendu behar zaio. Plubiometroa 6 orduro begiratzen da. Plubiografoak eguneko euri guztien datuak biltzen ditu. Bertan ikus daiteke noiz egin duen euri gehien.



Jardineko tresneria guztia ikusi ondoren, eraikinaren barnera zuzendu gintuen Iglesiasek. Bigarren solairuan gelditu ginen, Anemozinemografoa dagoen gelan. Tresna honek haizearen norabideak eta abiadurak izandako aldaketak biltzen ditu. Baita haizearen ibilbidea ere. Dena dela, informazio hori terrazan dagoen Anemometrotik heltzen da eta gela honetan datuak erregratzen dira. Iglesiasek azaldu zigunez, abiadura metro segundoko biltzen da eta gero hemendik kalkulatu da kilometro orduko. Haizearen norabidea ere gradutan jasotzen da. Ekialdea 90° , Hegoaldea 180° , Mendebaldea 270° eta Iparraldea 360° edo 0° . Bestalde, ikusgarritasuna ere gela honetatik aztertzen da. Puntu jakinen planoak dute alboan. Erreferentziako puntuak dira Aralar, Aiako Harriak, Getariako arratoia... Bertatik fenomenoak ere ikus daitezke. Ekaitzik badagoen, tximistak... Lainoak ere hemen aztertzen dituzte. Laino baxuak, ertainak, altuak... Eta bide batez, itsasoari erreparatzen diote. Bare dagoen, olaturik nabari den... baina oso azaletik.



Bisitarekin jarraituz, anemometroa gertutik ikusteko goiko terrazara eraman gintuen Iglesiasek. Bertan, beste bi tresnen berri ere eman zigun: alde batek erradiazioa neurtzeko tresna dago eta bestetik Heliografoa. Azken hori kristalezko bola bat da eta azpian eguzki-bandak ditu. Banda horiek eguzkiaren indarraren arabera erre egiten dira eta erre-takoaren arabera jakin daiteke eguzkirik egin duen, ze ordutan egin duen eta zenbat denboran.



Bisitarekin amaitzeko, hirugarren solairura jaitsi ginen. Behatokiko bulegoa dago bertan eta bi ordenaigailu daude Madrileko egoitzara datuak bidaltzeko eta bertakoa jasotzeko. Beti adi egon behar du behatzaileak ez ohiko fenomenoren bat gerta baitaiteke. Ikusi bezala, datu eta kalkulu artean, Meteorologia Behatokian ez dago aspertzeko denborarik. Askok pentsatu bezala, behatzailearen lana ez da auntsaren gauerdiko eztula, alajaina!



Bota puntua

Nahiz eta egun, Igeldon, Errausketaren Aurkako Talderik ez egon, gaiak badu bere garrantzia eta ezin dezakegu ahaztu. Antiguako taldeak kanpaina berezi bat egin du herritarrek kontzientziatu nahian eta Igeldon ere datozen hilabeteetan antzeko zerbait egiteko asmoa dago. Hori dela eta, antiguatarrek prestaturiko idatzia helarazten dizuegu haiek bezala gu ere kontzientziazten hasteko.

ALTERNATIBAK MARTXAN JARRI! ERRAUSKETARIK EZ!

Azken aldian pausu asko ematen ari dira Gipuzkoan zabor kudeaketaren inguruan. Gaur egun, 2 ildo nagusi daude; batetik Errausketaren aurkako herri plata-



formak proposatzen diharduguna, San Markos eta Debagoieneko mankomunitateak babestu dutena eta Europako zuzentarauei jarraituz zaborra gaika biltzeko ahalegina egiten duena (batez ere ia zaborraren erdia osatzen duen materia organikoa). Bestetik mugarik gabeko kontsumismoa eta herritarren kontzientzi eza bultzatzen dituen erraustegia, ondorio sanitario, sozial, ekologiko, eta ekonomiko kaltegarriak sortuko lituzke-

ena. Guk defenditzen dugun eredu-a, atez ateko bilketa, European milioika bizilagunen zaborra biltzeko erabiltzen dute, duela hamar-kadak ezarri eta azkenaldian zabaltze handia izan duena, Katalunyako sistema kasu. Tipologia ezberdinetako etxebizitzetan arrakastaz ezarri da, bai dorre zein sakabana-tutako etxeetan, eta 100.000 biztanletik gorako zenbait hiri handietan ere. Atez ateko bilketa Europako aginduei zorrotz jarraitu eta ekonomiko-ki merkeagoa den sistema da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagozkion erakundeek ere sistema honi behar duen babesa ematea eskatzen dugu, batez ere ekonomikoa, sistema bakar bezala organikoa erreusarekin bilduta eta ondoren erraustegira eramatea bultzatzen duten honetan. Arazoa konpondu ordez, gainera, zaborra gainera datorkie eta ikusi dugunez, Bizkaira eramateko hitzarmena egin behar

izan dute. Txingudin egin nahi zuten erraustegia ere epaitegiek baliogabetu dute, ingurumen eragin estudioa egin gabe zutelako. Ez dugu ahaztu behar konpostatzen den zaborraren zati organikoa zabor izateari uzten diola, lehengai bihurtuz. Honek ez du ez zabortegi ezta erraustegiari behar ere, eta epe motzean ezarri daitekeen sistema da.

Honez gain, Añorgan dagoen Cementos Rezola enpresari hondakinak eta beste hainbat produktu erretzeko emandako baimena salatu nahi dugu, orain erre dezaketenaren zerrenda askoz gai gehiagorekin zabaldu dutenean. Rezolakoak ez dio errauskailu ezkutu bat izateari uzten, bere kutsadura Añorgatarrek aspalditik pairatzen dutena (baimendutako mailetatik gora) eta alboan gaude-nok, Antiguotarrok esaterako, era berean pairatzen duguna.

Etxetik hasiz, kontzientzia landuz, ekin diezaiogun alternatibak aldarrikatu eta sustatzeari!

Antiguok Errauskailuari? Uko!

Apustu mundiala!!!

Irakurleen txokoa

Urriaren 10ean, (18:00etan) bi igeldotarren (Iker Dorronsoro eta Anjel Altuna) eta bi oriotarren arteko (Patxi eta Eneko) desafioa izango da. Egin beharreko lana: Lehendabizi pala partida (22ra) Iker eta Patxiren artean Igeldoko frontoian. Tanto bakoitzeko minutu bat irabaziko dute hurrengo saio-

rako. Bigarren saio hori Anjelek eta Enekok burutuko dute korrika eta bizikletan. Anbu baserri inguruko bidegurutzean hasi eta Orioko Bentan amaituko da. Jokoan dutena ez dakigu zer den, baina ez da txikikeria izango azken aldian entrenametueta jo ta su ikusi baititugu.

Herrian ze berri?

LIZARDI-IGELDO PILOTA ELKARTEAREN BALANTZEA

Joan den kurtsoan 46 mutil aritu ziren pilotan. Iazko gabonetan lehendabiziko aldiz loteria atera zuten eta loteria saltzen lagundu zieten gizon-emakume, elkarte eta jatetxeei eskerrak eman nahi dizkiete egindako lanagatik. Gainera, sari txiki bat tokatu omen zitzairen, ea aurten ere zorrea izaten duten!

Nahiz eta garrantzirik ez eman eta beraien helburua ez izan, iazko denboraldiko emaitzak onak izan zirela nabarmendu dute. Ezer irabazterik lortu ez arren, txapelketak irabazteko eta mailaz igotzeko lehian ibili ziren mutilak.

Alebinetan (11-12 urte) Imanol, Martin eta Onditz Gipuzkoako txapeldunorde gelditu ziren. Kadeteetan (15-16 urte) Mikel, Urtzi eta Xabier Gipuzkoako Hirugarren mailako txapeldunorde izan ziren.

Jubeniletan (17-18 urte) Aitor, Aritz eta Iñaki Gipuzkoako hirugarren mailako txapeldunorde izan ziren.

Seniorretan (18tik gora) Ioritz, Unai eta Unai Gipuzkoako hirugarren mailatik bigarren mailara igotzeko azken kanporaketan kaleratuak izan ziren.

Azkenik, aurtengo denboraldia irailean hasiko da eta 7 urtetik gorako neska-mutilak pilotan jolastera animatzen dituzte.

LUDOTEKA

Ikasturte berriarekin batera Ludoteka berriro ere martxan izango da. Iaz bezala, herriko zenbait guraso eta Kixmi aisialdi taldearen artean antolatuko da.



Bertan parte hartu nahi izanez gero, aipaturiko talde hauekin harremanetan jarri.

HAUR TXOKOA

Igeldotarra bazara, 18 urtetik gorakoa eta hurrekin hezitzaile lanean aritu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Irekitzeaz dagoen haur txokoak hezitzaile bat behar du.

Adina: 6-12 urte bitartekoak.

Ordutegia: Larunbat arratsaldetan, 17tik 19'30etara.

Lan baldintzak: Kontratu bidezko soldata.

Interesa baduzu telefono zenbaki honetara deitu eta xehetasun gehiago emango zaizu.
(605 769 567)

MUSIK@RTE

Kurtso berriarekin batera Musika Eskolako urte osoko ikastaroak martxan jarriko dira urritik aurrera. hala nola: musika tailerra, panderoa, trikia, pianoa eta aerobika. Ikastaro hauetan izena emateko epea irailaren 21ean amaitu zen. Hala ere, oraindik norbaitek interesa izanez gero, telefono honetara deitzea besterik ez du: 943313030.

Bestalde, Makrobiotika ikastaroa martxan dago jada eta hauek

dira hurrengo hitzorduetan: urriak 11, azaroak 15 eta abenduak 13. 9:00-17:00 Din-din elkartearen. Aurrerago ikastaro gehiago antolatzeko asmoa badago. Zehazten direnean horien berri izango duzue.

HERRI KONTSEILU- KO GAIAK

Din Din Elkarte

Alde batetik, segurua egitea erabaki da. IHKren izenean egingo da. Bestetik, Jubilatuen gelan dauden IHKren aulkiak jaistea onartu da.

PGOUren aurkako sinadurak

PGOUri alegazioak egiteko epea irailaren 15ean amaitu zen eta jasotako sinadura guztiak 485, igeldotar guztien % 59 izan ziren. PGOUren irizpide orokorrak eztabaidatzen ari zirenean aurkeztu zen txostena, berriro ere alegazio moduan aurkeztu da. Txosten hau IHKk sinatu du Igeldoko beste zenbait elkarteren atxikimendua-rekin.

Lur mugimenduak

Herrian egiten ari diren lur mugimenduak, betetze lanak eta kamioien trafikoa dela eta, kalteak sentitzen ziren herritarrekin bilera egin zen. Gaia konplexua da, izan ere, obra guztiak ez dira berdinak: batzuk legalak dira, beste batzuk ez dituzte betetzen jarritako baldintzak, ilegalak diruditenak ere badira... Hala ere, zerbait egin beharra dagoela ikusten du IHKk.

HERRITARREN OPORRAK

Udako oporraldia betiko errutinatik ateratzeko izaten denez, Igeldon ere jakin du jendeak honi zukua ateratzen. Batzuk herritik kanpora bilatu dute beraien lasaitasuna, baina izan da herrian bertan gauza ezberdinak eginez gozatzen jakin duenik ere. Hauek izan dira gure belarrietara iritsi zaizkigun planak.

PARKETARRAK

Dudarik gabe martxosoenak astelehen arratsaldetan parkean biltzen ziren guraso zein haurrak izan dira. Uztaila eta abuztuan zehar aritu dira jolas eta ekintza ezberdinak egiten (herri kirolak, altxoraren bila...) eta herria alaitzen.

Horren adibide beraiek asmatutako abestia:

*Beti pardelak kentzen, kentzen, kentzen,
kentzen...*

... ta ipurdik garbitzen

*nor gera gu
zer gera gu
PARKEtarrak gera gu
nor gera gu
zer gera gu
PARKEtarrak gera gu!*

*Beti aste-
lenetan, Ieldoko
plazan, atsalde-
tan...*

*...beti aste-
lenetan*

Nor gera gu...

*Ez gea
inoiz aspertzen,
sekulan ez,
sekulan ez, ja
jai!...*

...tilin-talan ibiltzen



Nor gera gu...



PARRANDAZALEAK

Igeldoko jaietan motorrak berotuta uda osoa jairik jai ibili dira beste zenbait. Herri ezberdinetako tabernak, erromeriak, ekintzak... ezagutu dituzte. Aipagarriena, agian, Donostiako Aste Nagusian Pirateteen antolatutako abordaia izan da. Igeldotarrekin ere Donostiako jai herrikoiekin bat egin zuten bigarren urtez.

DIN-DINDARRAK

Ez dakigu elkarrearen berritasunagatik edota ekonomi krisiaren eraginagatik izan den, baina Din-din elkarrekin izugarritzko arrakasta izan du uda honetan. Egia esan ez da aukera txarra izan, etxetik gertu ondo jan eta edanean gustura egoteak ere asko balio baitu.

MENDIZALEAK

Uda normalean deskantsatzeko aprobeztatzen den arren, batzuk esfortzua eginez gozatu dute. Gustoko lekuan aldapik ez! Izan ere, Joxe Mari Urangak eta Egoitz Etxebestek Pirineoak zeharkatu dituzte abuztuan. Kataluinatik Igeldora arteko bidea egin dute. Aipatu beharra dago uste baino lehenago burutu dutela ibilbidea eta neke handirik ez diegula somatu. Horrek eta ekarri duten beltzaran koloreak zalantzatxoren bat sortu digute ez ote diren benetan Mediterraneo aldeko hondartzetan ibili. Dena dela, bertsio ofizialari kaso eginez, merezi zuten ongi-etorria egin zieten herriko gazteek.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

